



# getxoBerri

**Getxo**

bizi ezazu

#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1.590 zk.  
www.getxo.eus

Maiatzak 7  
>> Maiatzak 17

2020



Amaia Agirre alkatea eta Iñigo Urkitza Ekonomia Sustapeneko zinegotzia

## 1,5 milioi euro Getxoko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu profesionaletarako aparteko laguntzetarako

Udalak 1,5 milioi euro bideratuko ditu autonomoentzako eta enpresentzako laguntzetara, Covid-19ak eragindako egoeraren ondoren udalerrian establezimenduak berriro irekitzea bultzatzeko. Alarma-egoera deklaratuak ekarri du norberaren konturako langile eta enpresa askok beren establezimenduak itxi behar izatea osasun-segurtasuna bermatzeko. Udalerriko negozioak ixtearen ondorioz, pertsona eta enpresa txiki askok zailtasunak izango dituzte beren jarduerari berriro ekiteko, konfinamendu-aldia amaitzen denean; izan ere, etenaldi horretan ezin izan dute diru-sarrerarik lortu zenbait kasutan, eta beste kasu batzuetan, oso urriak. "Hori guztia dela eta, Udalaren Ekonomia Sustatzeko Arloak uste du neurri ekonomikoak bultzatu behar direla Getxon dauden establezimenduei berriro ateak irekitzen laguntzeko, eta, horrela, Covid-19k eragindako osasun-krisiaren aurretik zegoen enpresa-ehunari eusteko eta baita, ahal den neurrian, bere jarduerarekin sortutako enpleguari eusteko ere", adierazi du Amaia Agirre alkateak.

Hau lehen neurria da. Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, herritarrak normaltasuna berreskuratzen joateko behar diren jarduerak sustatzen eta osatzen jarraituko du Udalak.

### Hartzaileak

Ezohiko laguntzen deialdi hau Ge-

txon publikoarentzat zabalik dagoen establezimendu batean jarduera ekonomikoak garatzen duten pertsona fisiko eta juridikoentzat da. "Horiek eskuratu ahal izateko, berriz irekitzen direnetik gutxienez lau hilabetez zabalik izateko konpromisoa hartu behar dute, eta martxoaren 14ko 463/2020 Dekretuaren itxierak eta haren ondorengo aldaketek eragina eduki behar izan dute, eta ez bada behartuta egon hura ixtera, apirilean fakturazioa %75 murriztu dela justifikatu behar du, 2019ko hileko batez bestekoarekin alderatuta", azaldu du Iñigo Urkitza Ekonomia Sustatzeko zinegotziak.

### Eman beharreko gehieneko zenbatekoak

Eman beharreko gehieneko zenbatekoak honako hauek izango dira:

- 1.500 € Getxon jendearentzako arreta duen lokal bat duen pertsona edo erakunde bakoitzarentzat. Era berean, honako zenbateko hauek gehituko zaizkie Getxon lokala duten pertsonentzat edo erakundeentzat, baldin eta langileak badituzte eta haietan lan egiten badute, beti ere plantillari eusteko gutxieneko konpromiso bat hartzen badute:
- 1 eta 3 langile artean (biak barne) mantentzeagatik: 300 €
- 4-5 langile mantentzeagatik (biak barne): 600 €
- 6 langiletik gora mantentzeagatik (hori barne): 900 €

### Beste baldintza batzuk

Diru-laguntza norgehiagoka-araubidean emango da, hau da, ez da aurkeztu den ordenan emango, zenbatekoak jasotako eskabide guztien artean banatuko dira, betiere ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta guztientzat aukera-berdintasuna bermatzen badute.

Onartutako eskabideen kopuruak ezarritako gehieneko aurrekontu-kreditua gainditzen badu, laguntza guztiak proportzionalki murriztuko dira.

Eskabideak egoitza elektronikoaren bidez egingo dira ([www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)), eta eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da BBO argitaratzen denetik eta eabazpena gehienez 3 hilabete epean izango da. Alarma-egoeran zirkulazioa mugatuta dagoenez, prozedura telematikoki izapidetzea gomendatzen da.

Laguntza hauek beste administrazio batzuek autonomoentzat, profesionalentzat eta enpresentzat kontzeptu eta helburu desberdinekin deitutako laguntzen osagarri dira. Deialdi honen inguruko oinarriak kontsultatu nahi dutenek udal webgunera jo dezakete: <https://www.getxo.eus/getxolan>. Informazio gehiago jasotzeko eta zailantzak argitzeko: 94 466 01 40 telefonoa eta [getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) posta elektronikoa.

### Elkartasunez eta esker onez bizitzea. Getxon bizitzea

Eta bapatean gelditu behar izan genuen. Baina ez gaude geldirik.

Osasun-krisi honen hasieratik, nire ahalegina gaizki pasatzen ari diren edo, hobeto esanda, okerrago pasatzen ari diren bizilagunengan jarrita dago. Izan ere, krisiaren aurretik gaizki zeudenak, sortutako egoerarekin, beren errealitatea askoz okerragoa da. Gainera, nahitaezko konfinamenduak kolektibo berri bat agertzea eragin du: hain zuzen ere gainerako pertsonak baino egoera delikatu eta konplexuagoan dauden gizon eta emakumeena, besteak beste, hurrengo arrazoiengatik: lanpostuak galtzearen ondoriozko ziurgabetasuna, ezinegona, mina eta sufrimendua, negozioak berriro irekitzen hasteko beharra, etxean adingabeen zaintza telelana-rekin uztartzeko betebeharra, senideekin zuzeneko harremanik ez izateak ezarritako mugen pean bizitzea, bakardadea, kutsatzea edo maite duten pertsonaren baten heriotzari aurre egin behar izatea. Kasu batzuetan, kaos ekonomiko eta, beste batzuetan, emozionala. Kasu batzuetan, ekonomiko eta emozionala aldi berean.

Pertsona horiek guztiak dira zuzeneko laguntzaren hartzaileak eta normaltasuna deitzen dugun horretara itzultzea bultzatzen duten gizarte- eta ekonomia-ekintzaren jasotzaileak.

Getxo udalerrri atsegina, baikorra, gogoetatsua, aktiboa eta solidarioa da. Eta COVID-19ren hedapenaren zorigaitzak, berriz ere, getxoztarren izaera solidarioa agerian utzi du. Batzuek dohaintza ekonomiko egin dute. Beste zenbaitek boluntariotzako kanalen bidez egin dute ekarpena, hala nola lankidetzako sare eta mugimenduen bidez, edo Hirugarren Sektoreko erakundeen bidez. Eta badira okupatu gabeko etxebizitza, negozioaren edo lantegiaren azpiegitura, ezagutza eta/edo sormena azken asteetan sortu diren beharren eskura jarri dutenak.

Eskerrik asko auzotar guztiei. Eskerrik asko Getxoko herriaren izenean, eta nirean ere. Eskerrik asko laguntza jaso duenaren izenean eta, baita elkartasun anonimoko keinu hauekin gure jendearen handitasuna sentitu dugunoi ere. Bihotzez, eskerrik asko.

Amaia Agirre  
Alkatea

# Erakunde Autonomoetako Zuzendaritza Batzordeei, Informazio-batzordeei eta Osoko bilkurari berrekingo zaie

Maiatzean hasiko dira berriro Getxoko Udaleko Erakunde Autonomoetako Zuzendaritza Batzordeak, Informazio-batzordeak eta Osoko bilkura. Guztiak, udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango dira, dagozkien ohiko egunetan: Zuzendaritza Batzordeak, maiatzaren 20an, asteazkena; Batzorde Informatiboak, 21ean, osteguna; eta ohiko osoko bilkura, maiatzaren 28an, osteguna. Eta jendarterik gabe egingo dira, streaming bidez emango dira eta aldibereko itzulpena izango da. Nahitaezko urrutze-neurriak betetzen direla bermatzeko eta, aldi berean, udalbatza osoan izandako ordezkariak proportzional berari eusteko, kontseilu eta batzordeetara joango dira kontseilu eta batzordeetako 11 kideak; eta osoko bilkurara 11 kide joango dira.



Herritarrek galderak egin ahal izango dituzte, eta horiek bilera eguneko bezpera arte izapidetu beharko dituzte, aurrez aurreko erregistroaren edo erregistro telematikoen bidez, edo [idezkaritza@getxo.eus](mailto:idezkaritza@getxo.eus) helbide elektronikora bidali, galderagilearen izena eta NANA adierazita, bai eta planteatzen duen gaiaren testua ere. Idazkariak irakurriko ditu galderak, udalkideen galdera-eskeen txandaren ondoren.

Aldi bereko itzulpena bermatuko da. Hala ere, itzultzaileen artean kutsatzeko arriskua saihestearren, itzultzaile bakarria joango da.

**\*Udal artxiboa: funtzionaltzeko modu berriak Covid 19 dela eta.** Udal Artxiboak jakinarazten du 2020ko maiatzaren 5etik aurrera, eta maiatzaren 3ko SND/388/2020 Aginduan eta IV. kapituluko 11. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorritik, zeinaren bidez artxiboak irekitzeko baldintzak ezartzen baitira COVID-19ak eragindako alarma-egoera deklaratu ondoren, herritarrei arreta emateko zerbitzua egingo duela. Horretarako, ALDEZ AURRETIK HITZORDUA eskatuko zaio, posta elektronikoz, [artxibo@getxo.eus](mailto:artxibo@getxo.eus) helbidera. Postan NAHITAEZ adierazi behar da zer kontsulta egin nahi den. Udal Artxiboak, 24 orduko epean, posta elektronikoz jakinaraziko du hitzorduaren eguna eta ordua. Udaletxean dagoen Herritarrentzako Arreta Bulegoaren eta [Administrazio Elektronikoen Bulegoaren](#) bidez ere egin daiteke.

**\*Udalaren webgunea deseskalatzeko faseak.** Deseskaladaren faseak eta Espainiako Gobernuak termino horiei buruz argitaratzen dituen gidak udalaren webgunean *Koronabirusa* atalean daude, Alarmaren egoera atalean, eta beste informazio interesgarri batzuk ere jasotzen dira: <https://www.getxo.eus/es/servicios/avisos/1243>



## Portu Zaharreko ezpondari eusteko lanak hasi dira

Aste honetan bertan hasi dira lanak, moilako bidearen azken zatia urbanizatzeko lanak ere aurreikusita daudelarik. Lanok hiru bat hilabete iraungo dute. Pantaila bat ipiniko da ezpondan, harri erorketak geldiarazi eta atxikitze; horrela, jausitako harriak ez dira iritsiko erabilera publikoko eremu ur-

banizatura. Halaber, ibilgailuen zirkulaziorako bideen baldintzak hobetuko dira, biribilgune bat eginez eta galtzada asfaltatuz. Horrez gainera, argiztapena hobetuko da eta hiri-altzariak ipiniko dira, besteak beste. Obra egiten ari den eremuko sarbidea itxi egin da, lanak amaitzen diren arte.

## Garbigune Mugikorra berrezarri da

Aste honetan bertan berrezarri da Garbigune Mugikorraren udal-zerbitzua, COVID-19k sortutako alarma-egoeraren ondorioz aldi baterako etenda baitzegoen. Horrela, zerbitzua

(pilak, tintak, Cdak, margo hondarrak... biltzeko) eten aurreko ohiko egunetan eta puntuetan eskaintzen da, hau da, asteazkenetik igandera (ikus erantsitako koadroa).



### ZER UTZ DAITEKE HEMEN?

- Pilak
- Margo eta barniz hondarrak...
- Tonerrak, tintak, CDak...
- Iraungitako sendagaiak, erradiografiak...
- Tamaina ertaineko EZ arriskutsuak...
- Aerosolak, disolbagarriak...
- Hondakin elektronikoak...

### ¿QUE SE PUEDE RECOGER?

- Pilas
- Restos de pintura, barnices...
- Toner, tintas, CD's...
- Medicamentos caducados, radiografías...
- NO peligrosos de tamaño medio
- Aerosoles, disolventes, etc...
- Residuos electrónicos...

**emaus.**  
94 416 74 00

## KIROLAK

### Getxo Rugby gizonezkoen maila nagusira itzuli da

Espainiako Errugbi Federazioaren Ordezko Batzordeak geratzen den denboraldian berriro ez lehiatzea erabaki zuen, eta ondorioz, Ohorezko A Mailara igotzen den taldea hoberen sailkatutakoa izatea. Getxo Rugby Taldea bere taldeko lider geratu zen 95 punturekin, liga bukatzeko jardunaldi bakarra falta zenean, play-offari aurre egiteko. 95 punturekin Jaen ere zegoen, C taldeko liderra, eta horregatik puntu aldea begiratu behar izan zen, onena zein zen jakiteko.

Euskal Ligako txapelduna den Getxo Rugby Emakumezkoen taldeari dago-kionez, Ohorezko B Mailarako igoera fasea jokatu du 2020-2021eko denboraldia hasi baino lehen, jardunaldi bakar batean. Getxotarrak Euskal Liga irabaztean jokatzeko sailkatu



ziren. Fase hori apirilaren 4 eta 5eko asteburuan jokatu behar izan zen, baina atzeratu egin behar izan zen Co-

vid-19aren hedapenaren ondorioz, eta, beraz, orain 2020-21eko denboraldia hasi baino lehen jokatu beharko da.

### Etorkizuna Mendi Taldearen argazki lehiaketa

Etorkizuna M.T. taldeko kide guztiak eta noizbait haren jardueraren batean parte hartu dutenak dira elkarrekin antolatutako I. Argazki Lehiaketaren hartzaileak. Argazkiak (2 argazki parte-hartzaile bakoitzeko) mendiko edo naturako paisaienak izango dira, JPG formatuan, eta [etorkizunamt@gmail.com](mailto:etorkizunamt@gmail.com) helbidera bidaliko dira, maiatzaren 17ra arte. Sariak, honako hauek dira: asteburuko irteera bat doan (1. saria) eta eguneko bi irteera doan (2. saria), aukeran, 2020ko edo 2021eko Klubaren irteeren artean. Argibide gehiago: <https://etorkizunamt.wordpress.com/>



**COVID-19k larritutako egoeretan dauden pertsona edo familientzat**

## Caritasek, Gurutze Gorriak eta Sortarazik laguntzak jasoko dituzte gizarte laguntzarako

Sotarazi, Gurutze Gorria eta Caritas elkarteek Udalaren dirulaguntza zuzen bana jasoko dute gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen eta familiei eskaintzen dieten gizarte-laguntzaren sostengurako, COVID-19k egoera horiek kasu askotan larriagotu baititu. Sortarazik 20.000€ jasoko ditu, eta Gurutze Gorria eta Caritas elkarteek 10na mila euro, eta Udalak zeregin horietarako urteko hitzarmenaren bidez aurreikusitako 35.000€-tik gorako zenbatekoei gehitzen zaizkie. Horrela, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen katalogoak aurreikusten duena betetzen da, hau da, herri administrazioek, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen saiatzea, egungo egoeran gainera erakunde horiek direlako, hain zuzen ere, eskarien parte handi bat jasotzen ari direnak, elikagaiak banatzen dituztenak eta beste jarduerak batzuk egiten diutuztenak. *“Udalerrian oso errotuta dauden hiru elkartei ematen diegun laguntzarekin, familia ahulenen eta COVID-19ren krisi honen ondorioz, kaltetuago izan direnen oinarritzko beharrezan erantzuteko lankidetzaz ahalbidetzen saiatzen ari gara”,* azaldu du Carmen Diazek, Gizarte-Kohesio zinegotziak.

Elkarteek diru-laguntza hurrengo jardueretarako erabiliko dute: elikagaien eta higiene- eta garbiketa-produktuen loteen banaketarako, baleen edo erosketa-txartelen kudeaketarako, tutoretza autonomia pertsonal maila handiagoa eskuratzeko eta laguntza ekonomikoaren kudeaketarako laguntza-programarako. Familiek zuzenean eskura izango dituzte jarduerak horiek, baina dagokion Oinarritzko Gizarte-Zerbitzuen parte-hartzea bermatu beharko da.

**Eguneroko menuak egiten laguntzen dute, Covid-19aren krisian premia handiena duten pertsonentzat**

## Itsas Klubaren eta World Central Kitchen GKEaren arteko akordioa

Abrako Itsas Klubak akordioa lortu du World Central Kitchen (WCK) Gobernu Kanpoko Erakundearekin, hau da, Jose Andres AEBn bizi den chef espainiarrak sortutakoarekin, egunero menu bat eskaintzeko koronabirusaren krisiak gehien kalteetako kolektiboentzat. WCK-k egunean 200.000 otordu baino gehiago banatzen ditu AEBn, eta 40.000 baino gehiago estatuan. Gaur egun, ekimen solidario honek 14 sukalde ditu estatuko 10 hiritan (#ChefsforSpain), eta horiei RCMA-RSCko



sukaldea (lehen da Euskadin) gehitzen zaie. Eta hori egiten du klubeko bertako sukaldaritza profesionaleko taldearekin eta boluntarioekin. Horiek, modu altruistan, Jose Andresen gobernu kanpoko erakundearen gidaritzapean aritzen dira. WCK-k menuetarako lehengaiak eta antolaketa- eta gainbegiratze-metodoak ipintzen ditu; RCMA-RSCk boluntarioak abian jarritako kanpaina baten bidez, eta Bizkaiko Gurutze Gorriak eta Elikagaien Bankuak eguneroko banaketa.

**Getxo Lagunkoia adinekoei paseatzeko ibilbideak proposatzen dizkie**

## “Getxon oinez, 1000 pausu baietz”

Udalak *Getxon oinez, 1000 pausu baietz!* ekimena jarri du martxan, Getxo Lagunkoia proiektuaren barruan, adinekoei oinez ibiltzera joatera animatzeko, jarduera osasungarri hori berreskuratu nahi baita, hura arautzen duten segurtasun-neurriak ezagutu ondoren. Horretarako, RKE-Romo Kultur Etxean 60 urtetik gorakoentzako jarduerak fisikoak arduratzen den zerbitzuak, oinez egiteko 24 ibilbide prestatu ditu udalerriko hainbat tokitatik, ohiko ibilbideetatik zertxobait aldentuta, jende kopurua saihesteko eta bakoitzak nahi duena egin ahal izateko. Ibilbide horiek 1,5 eta 3 km-koak dira, pertsona bakoitzak horietara iristeko behar duenari gehituta, ordu bateko iraupena ez gainditzeko. Ibilbide atseginak eta irisgarriak dira, kilometro bateko erradioko zirkunferentzia baten barruan kokatuta, eta WhatsAppen bidez bidaliko dizkiete RKEko kirol-zerbitzuaren erabiltzaileei. *“Ekimen honen bidez, adinekoei artean, zabaldu nahi dugu konfidantza etxetik segurtasun-bermeekin paseatzera irteeraren inguruan. Autzokoen elkartasuna sustatu nahi dugu*



*arauak betetzearekin batera, eta, era berean, osasuna eta dibertsioa hobetzea bultzatu nahi dugu, jarduerak fisikoak eginez”,* azaldu du Arantza Rica Zaharrezko zinegotziak.

**Podometroa deskargatzea**

Gainera, maitzean, parte-hartzaileak podometro bateko aplikazio bat jaitsi eta erabiltzera animatu dituzte (mugimendua hautematean urrats bakoitza kontatzen duen gailua, hainbat datu ematen dituena eta oso baliagarria dena jarduerak fisikoarekiko atxikimendua sortzeko), egingako ariketa ezagutzeko. Jarduerak fisikoak arduratzen den zerbitzuak tresna hori gailu mugikorretan instalatzeko laguntza eskainiko du.



## Deseskaladaren 0 fasean

Getxoko kaleetan, pasealekuetan eta hiriguneetan milaka getxotar ibiltzen hasi berri direnean, jarduerak osasuntsuak egiteko eta ia bi hilabeteko konfinamenduaren ondoren paseatzeko irrikaz, hiria letargian dagoen merkataritza-jarduerak berreskuratzen hasten da neurri batean, hori baita auzo eta udalerrien bizitzarako gakoa. Hasiera da. Aste honetan, saltokiek, oraingoz aurretiko hitzordua eskatuta irekitzen dutela, Udaletik jaso dute (Getxo Enpresa, Algotako Dendak eta Romo Bizirik elkarten bidez) 12.000 maskara kirurgiko, 6.000

eskularru pare eta 100 litro hidrogel; eta, laster, aurpegiak babesteko 1.000 pantaila jasoko dituzte, ile-apaindegietarako eta estetika eta edertasun zentroetarako. Inoiz baino gehiago, tokiko merkataritzari laguntzeko unea da, konfinamenduak iraun duen bitartean egunero ireki dituzten dendei eta baita berriro irekitzen dutenei ere. Ildo horretan, Udalak Getxon kontsumitzeko deia egiten die getxotar guztiei, eta gizarte-urruntzerako neurriekin erne egoteko deia ere egiten die, gure udalerriaz gozatzeko erantzukizun indibidual eta kolektiboa eskatzu.

# Udal talde politikoaren iritzia



## ESKERRIK ASKO GETXO

Eskerrik asko Getxo, Covid19ak eragin duen pandemia garaian udalerrin honetan bizi eta lan egiten dugun guztion jokabide eredugarriatik. Izan ere, portaera benetan eredugarria, zibikoa eta solidarioa da etxean geratzeko eta konfinamendua betetzeko premia izan dugun pertsona guztiona. Getxoko merkataritza-sareko emakume eta gizon guztien eta sare horretan lan egiten duten pertsonen merkataritza-establezimenduak, ostalaritza-establezimenduak edo zerbitzu profesionaletako establezimenduak ixteko prestasuna eta konpromisoa zeharo eredugarria izan delako, hasieratik. Jakina, azpimarratzekoak dira Covid19aren astinaldirik bortitzenean azoka, supermerkatu, farmazia, oinarritzko zerbitzu, garraio, osasun arloko zerbitzu, banaketaren arlo eta boluntariotzan lanean ari diren pertsona guztien konpromisoa eta lana, herritarren beharrei erantzuteko asmoz egindako lana.

Eskerrak ematen dizkizuegu, zinez, Getxoko Euzko Alderdi Jeltzalearen kideok, ahalik eta herririk onena erai-



kitzen aktiboki parte hartzen duzun —dugun— guztioi, salbuespeneko osasun-egoera honetatik irteteko aurrera egiten saiatzen zareten guztioi. Bereziki, mila esker Getxoko Udalari, egin duen eta garatzen duen lan diskretu, arduratsu eta zorrotzagatik. Udal langileak hasieratik egon dira lan egiteko prest; guztien artean herritarrei zerbitzua bermatu diete. Eskerrik asko Korporazioa osatzen duten alderdiei, Covid19aren pandemiaren egoera ezezagun eta konplexu hau kudeatzeko eskaintako laguntza, elkarriketa eta ekarpenengatik. Jakina, eskerrik asko

Amaia Agirre buru duen udal gobernuari, arlo guztietan ari baita lanean, eta lan ezin hobea egiten baitu, ekintza, neurri, ekimen eta xedapen posible guztiak gaituz getxotarren osasuna bermatzeko, une oso zailean dauden pertsonen gizarte-arreta indartzeko, edota herriaren iraunkortasun ekonomikoa sendotzeko, helduko diren hila-bete latzei begira.

Eskerrik asko udal egoitzaren kudeaketagatik eta, hainbestez, adinekoen bizitzaren kudeaketagatik, eskerrik asko Udaltzaingoenagatik,

segurtasuna zaintzen baitu eta egun hauetan ilusio handia baitarama Getxoko etxe askotara; eskerrik asko Getxoko osasuna ere zaintzen duten garbiketa- eta lorezaintza-zerbitzuen lanagatik; mila esker Sustapen Ekonomikoa Arlotik egindako lanagatik, horri esker, Getxok ahalik eta baldintzarik onenak izango baititu pandemia-egoeratik ateratzeko; mila esker gizarte-zerbitzuei, getxotarrek egindako ekintza arduratsuegatik; eskerrik asko brigadei, eta hirigintza eta obretan beharren zain daudenei; eskerrik asko udalarentzat ahalik eta lan-sistematik onena diseinatu dutenei, ogasuneko langileei, egoera ezezagunetarako konponbideengatik; eskerrik asko kultura eta kirol arloko, proposamen bikainak helarazteko modu berriak aurkitu baitituzte; mila esker zahartzeko aktiboko programari, bertualki aktibo baitago, komunikazio- eta partaidetza-arloari ere bai, ahalegin handiak egiten baititu Getxon lantzen diren ekintza eta ekimen guztien berri izan dezagun. **ESKERRIK ASKO GETXO!** Lortuko dugu!



## EAJ EZKUTUAN BERROGEIALDIAZ BALIATUZ



Gobernu taldea ia berrogeialdi osoan desagertuta egon da, eta isiltasunean getxotarrek goitik behera arbuizaten dituzten proiektuak onartu ditu, hala nola Algortako UVEak eraistea edo Areetan tanatorio bat irekitzea; hain zuzen ere, PP ere bi proiektu horien aurka dago.

Aste hauetan, EAJ eta PSE merkataria eta ostalarientzako 1.500 euroko laguntza "harro-harro" iragartzeko baino ez dira agertu. Laguntzak zirtzil parekoak dira, sektore horiek jasaten dutena eta hemendik aurrera jasango dutena kontuan hartuta. Gehiago eman behar diegu. PPK zabor, estolderia edo terrazen tasarik ez kobratzeko eskatu du, bai eta saltoki bakoitzari 3.000 euroko laguntza eman eta tokiko erosketak sustatzeko bonuak sortzeko ere.



## COVID-19: MILA ESKER ZUON AHALEGINENGATIK

Egun bizi dugun osasun-krisian, espazio hau berreskuratzen dugu herritarrengana jotzeko. Lehendabizi, mila esker, bihotzez, oinarritzko zerbitzuak izateko lehen egunetik larrua uzten ari zaretenoi, gu zaintzen ari zaretenoi. **ESKERRIK ASKO**, benetan! Uste dugu erakundeek, gutxienez, zuen mailan **EGON BEHAR DUTELA**, pandemiatik ateratzeko ahaleginengatik. Horregatik, Elkarrekin Getxoko kideok lanean jarraitzen dugu herritarren nahiak kontuan har daitezen, bizitza errazagoa izan dadin (tanatorio bat edo edukiontzi berriak jartzeak eragiten duen ondoreza saiheste aldera), eta laguntzak ahalik eta lasterren irits daitezen beharizanik gehien duzuenongana. Orain, inoiz baino areago, batasuna da bidea. Harremanetarako helbide elektronikoa: [elkarrekinpodemos@getxo.eus](mailto:elkarrekinpodemos@getxo.eus)

## ehbildu KRISIARI AURRE EGITEKO PROPOSAMENAK

Azken asteak oso gogorak izaten ari dira getxotzar guztientzat. EH Bildutik elkarlanerako jarrera izan dugu krisia hasi zenetik. Izan ere, gure ustez, alderdikeriak albo batera uzteko momentua da, eta krisialdi honi eta bere ondorioei aurre egin behar diogu **denon artean**. Krisia ez dezatela betiko prekarizatuek ordaindu.

Helburu horrekin, Getxon hainbat proposamen aurkeztu ditugu: **dendari txiki**, ostalaritza eta autonomoentzat diru-laguntza bereziak onartzea; **Getxoko artista** eta kultur sortzaileekin online egitaraua sortzea; **alokairu eta hipotekak** ordaintzeko diru-laguntzak martxan jartzea; **zaintzetan** eta etxeko zereginetan lan egiten dutenentzat arreta berezia (kasu askotan ez dute kontraturik, Gizarte Segurantzaren alta barik...); Getxon **bizikletaren erabilera-**

**ri** lehenetsia emateko proposamena; **Getxobono bat** martxan jartzea denda txikietan gastua aktibatze asmoz eta abar. Proposamenak: <https://issuu.com/getxokoehbildu> Hamaika proposamen egin dizkiogu Udal Gobernuari, eta harrera ona izan badute ere, gure neurriak ez dituzte martxan jarri, eta kasu askotan, ez dira eztabaidatu ere egin. Etsituta diogu: Udalak hartu dituen **erabakiak berandu** hartu dira, eta kasu gehienetan, ez dira nahikoak izan. Krisi hau oso gordina izaten ari da, baina zorionez, gure herriaren **aurpegirik solidarioena** ere agerian geratzen ari da. Horren adibide dira, besteak beste, Romon edo Algortan sortu diren zaintza sare herritarrak. Auzokideen arteko babesaz eta auzolanaz, aurrera egitea lortuko dugu. **Zaindu gaitzen!**

PSE-EE  
PSOE

## COVID-19AREN LARRIALDIAN GARRANTZIKOA DENARI EHINGO DION TOKIKO GOBERNUA

Begien aurrean agertoki latz bat dugu, krisi sanitario, ekonomiko eta sozialak egituratu eta Covid-19ak bidean utzi duena. PSE-EEko kideok elkartasun mezua helarazi nahi diegu maite duten norbait galdu dutenei eta gaixorik daudenei. Bai eta ondorio larriagoak jasaten ari zaretenoi ere, lehen leerroan egiten duzuen lanagatik, lana galdu duzuelako edo diru-sarrerak larriki murriztu direlako.

Getxoko PSE-EEko kideok uste dugu laguntzeko modurik onena gobernu taldearen barruan egiten dugun lana zehatz eta zorrotz burutzea dela. Lana ardurarekin eta ahalegin biziez egiten

saiatzen gara, batasunez, eta lehenetsia pertsonarik ahulenei emanez. Horregatik, besteak beste, oinarritzko premietarako laguntza osagarriak jarri ditugu martxan, gizarte-larrialdietarako eta aldizkakoak ez diren udal laguntzekin batera, gizartearen eskari osoa estali arte. Beste neurri batzuk ere ezarri ditugu: udalerriko adinekoei deitzea, etxerik gabeko pertsonentzako aterpea, Gurutze Gorria, Caritas eta Sortarazi elkarteentzako dirulaguntzak handitzea, tokiko merkataritzaren koordinazio eta laguntzetarako mahai bat sortzea eta mikroETE zein autonomoei laguntzak ematea.